

Lurperatu Zuk
gure obena,
uiol ez gaitezan biur;
Zu zaitez, Jauna,
gure abaro,
pozaren izpi ta atseden-lur.

Bego mardulik
oraindiño be
euskal erriaren enda,
Zu goretsiaz
ta maitatuaz
izan dagian nai dauna.

KANPAIOTSA

Kanpai-ots ikaror, kanpai-ots garden,
arraio durunduz or goian ozen,
ez egik egundo dei ori eten.

Goiz-jaunak orduko illuna meetu,
ik zoli diarduk ots ta durundu:
otoitz-dei goiztarra an-or zabaldu.

Eguzkia garrez goira danean
ta armindu ondoren urpe sartzean,
asper barik ago ots bardiñean.

Ene kanpai maite, jarraitu intziriz,
biotza bai daustak jgurtzen eztiz
ta adía ixiotu eder-gai biziz.

Adur gaizto itzala yabil ondorik,
izar ta eguzki aiendu barik:
baiña ik ba-dok naiko niretzat pozik.

Noizka, jaiezkoa dok jre otsa:
urduri ta bizkor, didar bai litza,
uri-basoetan azalduz poza.

Baita be, astiro, norbait jl bada:
eresi eztia aur txiki dala,
zarrik il ba'dadi, samin-dunbada.

Nik, alan be, beti, nai pozkor nai itun,
i aut zintzoena espetxe-lagun:
gau baltzez lastargi, nekean gardun.

EZKER-MUTURRAKIN

Ezker-muturrakin txautu dot
matrail-izerdia,
beetik gora itsatsi yatan
azal-kandu loia.

Ta arri baten jesarrita,
barne-min dantzari,
begiak emon dautsodaz
egin bideari.

Basarte: pozaren billa
eldu naiz onera,
ta zergaitik dot biotza
triste, negarbera?

Beian lanari lotua,
auldu naiz osoan;
atseden eztia nai dot
jxil-jarioan.

Zugatz azpian erreka
etenbako oslari,

arri koskorrik mosutuz
doakit dantzari.

—«Erreka —otsegin dautsot—,
i bere kezkaz al abil,
bedar ezeak lazanduz,
otzaren ots bipil?

Ta, xinpleki, erantzun daust:
—«Beti ibilli, ibilli!
Nik, mendi bakea iztean,
ba-dot kezka-gili».

Nik dasat: «.Iñolaz bere,
eztot negar gabe
ez oianik, ez biotzik:
bee-ibar bere baitogu
nausi atsekabe»

UR! UR!

(Pisuerga ondoan egiña)

Ur! ur!, zokoz zoko arin oan ur!
Zer dala-ta dagik orren mee surmur?
Arri ta zur naukak ertz muskerrean,
ire ai jasoten aize urdiñean.

Ibillian gartsu lorai laztanka,
ipuiñez diarduk ixil-mixilka?
Ala, ari gaiztozko, mormox-uts abil,
uberkak esitzen aulako zurbil?

Aspaldia danik zori bardiñak
ez ete alatzen gure barrenak?

Erreka yaroat muiñean oska,
iñoiز ixil bako naigabe-erreka.

Gaitzetan nagola urteak dira,
ta noiz barriro ikus zorun-dirdira?
Eguzkiak dagi argi goibela,
pizkaka darion izpi motela.

Ixil-zale diran maite bi letxe,
gu gagozan emen guztiz as-arte.
Minkide aut, urtxo, samiñez ase;
ik argitu leikek nire errai-leze.

Gorrotoa yabilk an-or nagusi,
ta bake-eske igana nator igesi.
Gizarteko aize atsituz urrun,
zeru yoat jre altzoa, kutun.

Ta iri yiñoat gaur ercsta miña,
azalera barik jaon eziña:
i beintzat erruki, urtxo gardena,
neugaz bai darabilt miñik latzena.

Bein bota ninduen neureakandik,
ta arrezkero ba-dot naiko oiñazerik.
Aita itxi naioan, ala-bearrez,
ta ama noiz itoko zotin-negarrez.

Nire oiua bai zala garratza!
Zimel eustan ja miñak biotza.
Poz-zuzia yatan osoz itzali,
ta gogoa laiño kizkor estali.

Ordutik, ai ene!, goibel naz bizi:
igar-laru soiña, arima larri,
ta noiz-arte ekingo negar-bidetik?
Eriotzaraño ez ete jzarrik?